


BERRIGARA

200. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, uztailak 14

Igerilekuetako zaindariak



LARRAÑAGA Autoeskola



Artekale, 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA



LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7 BERGARA
☎ 76 31 71

ABUZTUKO ORDUTEGIA:
Goizeko 9etatik
arratsaldeko
6ak arte jarraian

Z E B E R R I D A ?

E S A N
D U T E


LUIS MARI AGIRRE Eguraldi neurtzailea

- Zenbat euri jaso genuen Bergaran astelehenean?

- Ba hiru ordu laurdean 37 l/m2-ko jaso genituen. Handik ordubetara egindako neurketaren arabera, guztira 46 l/m2-ko izan ziren. Kolpera euri asko egin zuen bai, baina uda partean halakoren bat noizean behin gertatzea ez da oso arraroa. Honelako euri jasak jarraitu ezkeror orduan arriskua dator baina ordubete bategatik ez da ezer pasatzen.

- Bestalde, tenperatura altuak ere izaten ari gara egunotan...

- Larunbatean 35 °C eta igandean 33 gradu izan genituen. Baina urteko egunik beroena orain arte ekainaren 18a izan zen. Orduan 36 gradutara



iritsi ginen. Dena den, udan egun bat edo beste 38 gradutara heltzea nahiko normala da. Egundatzuk segidan eginez gero, berriz, larri ibiliko ginateteke.

- Nolako izango da aurtengo uda?

- Nik ez dut predikzioirik egiten, pasatakoa neurtu bakarrik. Hobe Arantzazuko fraileari galdetzen badiozue (barre).

"Astelehenekoa moduko euri jasa udan gertatzea ez da oso arraroa"

I T U R R I O N E T I K

Bergarako UNEDek egitura berria izan dezake

Enpresa batek Bergarako UNEDeko funtzionamenduari buruz egindako txostenaren arabera, baliteke datorren ikasturteetik aurrera Bergarako zentruak egitura berri bat izatea. Madrileko UNEDeko Departamentua badirudi ez dagoela prest orain arteko esturturekin jarraitzeko eta UNEDeko zentroa jestionatzen duen Patronatoan (Diputazioak, Udalak, Kutxak eta Euskadiko Kutxak osatutakoa) ere iritzi ezberdinak entzun ahal izan dira. Hala ere, 1995-96 ikasturtea hasi baino lehen hartuko da egituraren inguruko erabaki definitiboa.

"Jairik onenak? Hemen bat daukat aipatzeko: Bergarako San Martzialak. Egundatzuk bat izaten da. Eta goizean mendira igo, herri bazkaria egin, erromeria izaten da bertan eta txarangaren atzetik jaisten gara. Joan den igandean izan zen gainera. Denbora libre asko izanez gero? Gehiago idatziko nuke. Eta gero, lehen aipatu ditudan *hobby* (*puenting* eto *raftinga*) horiekin jarraitu eta musika kontzertuetara joan"

NORA ASKARGORTA
Kazetaria
EGUNKARIA

"Zabel, Laurent eta Moncassin bezalako sprinterrek eman didate garaipena. Egia esan taldea osatzeko azken unera arte itxoin dut. Girorako hasieran egin nuen eta gero Pantanik ez zuen korritu"

JOAKIN ELKOROBerezibar
Diario Vascoko Super Tour porrako irabazlea
EL DIARIO VASCO

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Irene Larrañaga

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Publizitatea:
Alex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien
Erredakzio kontseilua:
Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien

Komikiak:
Bitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
Banaketa:
Txantxangorri taldea

Tirada:
4.000 ale.
Inprimategia:
Beru Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA
Lege gordailua:
SS 50/91
ISSN:
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

**SEMILLAS DE RENCOR**

Ostirala: 22.30.


Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

▼ **Santamainak**

Santa Marinako jaiei hasiera emango zaie astelehenean. Eguerdiko 12etan etxaleroak eta kanpai hotsak iragarri dira, 4retan jokuak Jubilatuetan, 7etan Buruhaundiak eta Kobok dultzaineroak eta 8etan makalaren igoera. Asteartean, berriz, goizeko 10etan jubilatuentzat ibilaldi neurtua, 7.30etan Herri Meza Santa Marinar Udalar Korporazioarekin eta ondoren Aritzeta abesbatzak emanaldia eskeiniko du. Datorren astebukaeran zehar jaiei jarraipena emango zaie.

**Zinea**▼▼ **John Singleton**

zuzendariak (*Los chicos del barrio*) beltzen inguruko mundua isladatu nahi izan du berriz ere. Berak idatzitako gidoi honetan, Columbaseko

Unibertsitatean ikasten ari diren hiru ikasleren bizitzak abiapuntutzat hartu ditu zer ikasten duten eta nork erakusten dien aztertuz.

Laurence Fishburne (*Pulp fiction*) *Phipps* irakaslearen paperean eta berarekin, besteak beste, **Ice Cube**, **Jennifer Connelly** edota **Kristy Swanson**.

Deiak

▼ **Mendi irteera.** Gorla Alpinok eta Pol-Polek Castrograndera egun osoko irteera iragarri dute iganderako. Irteera 7.30etan Frontoitik.

▼ **Akanpada.** Pol-Polek 14 urtetik gorakoentzat uztailaren 22, 23, 24 eta 25erako Picos de Europa akanpada antolatu du. Izenematea eta argibideak Pol-Poleko bulegoetan jaso ditzakezue astelehetik ostegunera bitartean 19etatik 20.30etara. 76 48 51 telefono zenbakira ere deitu dezakezue informazio eske.

▼ **Piraguismo** ikastaroak uztailaren zehar Albinan. Argibideak nahi izanez gero deitu 76 18 85 (Alex) telefono zenbakira eguerdi partean, ordu bietatik 3retara.

Ogia▼ **Igandea 16:** Konde.**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 14:** Mozos/Español.
- ▼ **Larunbata 15:** Estella/Corc.
- ▼ **Igandea 16:** Estella/Irizar.
- ▼ **Astelehena 17:** Cam./Amez.
- ▼ **Asteartea 18:** Guallar/Azko.
- ▼ **Asteazkena 19:** Estella/Esp.
- ▼ **Osteguna 20:** Guallar/Irizar.

**ANDONI
ARANZABAL
LAZCANO**

FINKA ADMINISTRATZAILEA

Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA
☎ 76 03 46**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

EXLUKUN**BEREZITASUNAK**Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Antzuolan festak

Astebukaera osoan zehar jaigiroa nagusituko da

Atzo hasi ziren Antzuolako jaiek jarraipena izango dute astebukaeran. Gaur ostirala, Gozategi anaiek alaitutako sagardo festa izango da arratsaldeko 7etan Plazan, 8etan Idolazek antolatutako bolo jokoa Olanen Etxean eta gaueko 10.30etan Joselu anaiak taldearekin dantzaldia Plazan. Orduerdian beranduago, 11etan, Nahitanahiez taldeak rock kontzertua eskeiniko du Zurrategi Plazan.

Larunbatean, 12etan sokamuturra eta ponyak Plazan, ordubatean Bergarako Musika Bandaren kontzertua Zurrategiko kioskoan eta, arratsaldeko 6etan, Antzuolako jaietako ospa ematen dien ohizko Mairuaren Agerraldia. Gaueko 10etan Otegi eta Muruamendiarazaren arteko pelota partida 4 t'erdien barruan, Egan berriarekin dantzaldia 10.30etan Plazan, Berer Moshekin rock kontzertua eta 12etan Tirri-Tarra fanfarrearen ikusentzutekoa Zurrategi plazan.

Azkenik, igandean, Afizionatuentzat III. Inaki Lete Memoriala txirrin-



Ekitaldi ugari iragarri dira astebukaera honetarako Antzuolan.

lari proba, Saralegi anaiekin harri jasotze saioa eguerdikoko 12.30etan, 14.30etan herri bazkaria, 16.30etan sokamuturra eta pony-

ak Plazan, 6etan triala Zurrategi Plazan, 8etan herriko kirolari onenei omenaldia eta 8etan Iruña Bandekin dantzaldia.

Mairuaren Agerraldi famatua larunbatean 6etan izango da

EGITARUA

OSTIRALA, 14

- 19.00:** Bertsolarien arteko futbol partidua Estala futbol zelaian.
- 19.00:** Sagardo festa eta erromeria Gozategi anaiekin.
- 20.00:** Bolo-jokoa Olanen.
- 22.30:** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin Herriko Plazan.
- 23.00:** Rock kontzertua Nahitanahiez taldearekin Zurrategin.

LARUNBATA, 15

- 10.00:** Udai Txistulari Banda.
- 11.00:** Kalejira Bergarako Udai Musika Bandarekin.
- 12.00:** Sokamuturra eta ponyak.
- 13.00:** Bergarako Musika Bandaren kontzertua Zurrategiko kioskoan.
- 18.00:** Mairuaren agertaldia.
- 19.00:** Herriko dantzarien saioa.
- 19.30:** Tirri-Tarrarekin kalejira.
- 22.00:** Otegi eta Muruamendiarazaren arteko pelota partida frontoian.
- 22.30:** Egan Berria taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.
- 24.00:** Tirri-Tarra Zurrategi Plazan.

IGANDEA, 16

- 09.00:** Inaki Lete III. Memoriala.
- 12.00:** Incansables txaranga.
- 12.30:** Herriki kirolak: Mikel Saralegi.
- 14.30:** Herri bazkaria.
- 16.30:** Sokamuturra eta ponyak.
- 18.00:** Triala Zurrategi Plazan.
- 20.00:** Herriki kirolari onenei omenaldia.
- 22.00:** Iruña Band taldearekin dantzaldia.
- 02.30:** Incansablesekin kalejira.

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Eskerrik asko guztioi

Kikaundi elkarteko partaideak lau urte ludotekan jo eta ke jardun ondoren, lan hau laga beharrean aurkitu gara. Baina ez genuke joan nahi zuek, gurekin aritu zareten guztiok agurtu gabe eta nola ez!, ezin aldegin jasotako laguntza eskertu barik.

Hamaika ekintzak osatu dute urte hauetako egitaraua: udalekuak, asteburuko zein astetan zehar burututako aktibitateak, ea., dena den guretzat inportanteena, zenbaitek egindako lana izan da. Hemendik gure eskerrik beronenak bidali nahi genizkizueke bertan gogor eta gogoz aritu zareten begiraleoi, guran konfidantza osoa izan duzuen gurasooi eta oraindik aipatu ez ditugun protagonistei: haurrei!!!

Jolas, joku, oihu, korrika ugari eta franko egin ditugu batera, eta elkarrekin pasa ditugun urte hauetan guk adi-na ikasi baduzue, ez dago batere gaizki. Primeran pasatu duzelakoan gaudete eta irailetik aurrera beti bezain alaitsu gu gabe bada ere, jarraitzeko asmoa duzuela pentsatu nahi dugu, azken finean zuek zarete lan honek duen helbururik nagusia eta hau ez dago ahazterik, beraz, zorte on epe berri honetan!

KIKAUNDI

Demokrazia partehartzailea

Ohiko alderdi politiko eta erakundeen burokratizatze prozesuaren ondorioz gure herriaren sektore zabalak desilusia, etsipena eta sinesgarritasun ezaren itzalpean bizi dira.

Logikoa denez, gero eta herritar gehiago daude, gazteak batez ere, politikari hauekin ez eta politika hauekin ere bat egiten ez dutenak. "Denak berdinak dira" edo "politikak niri bost axola", besteak beste, egunero entzuten ditugun esaldiak dira.

Gure udaletxean, funtzionatze moduan erabateko aldaketak sartzearen aldeko apostua egin dugu (erantzuna?... Ez da aztertu ere egin).

Beharrezkoa da gizarte mugimenduek, herri erakundeek eta mugimendu herritarrek, azken finean pertsonen, udaletxearen erabakietan parte hartu ahal izateko mekanismoak gauzatzea. Partaidetza, elkarkidetza, gardentasuna eta irekitasuna oinarriko printzipioak izan behar dute. Udal gestioa udalerriko biztanle guztien eskaeren arabera izan behar da.

Guzti honegatik honako funtzionamendu proposamena egiten dugu:

a. Gobernu batzordean parte hartzeko eskubidea (alderdi guztiak ego-
tea).

b. Plenoak hilean behin egiten beharra ikusten dugu. Hauetan edonorentzat hitzegiteko aukera.

c. Inolako gairik ez da utziko alde batera eztabaidarik gabe.

d. Batzordeak irekiak izango dira, bertan zinegotzi eta herritarrek esku hartuko dute.

e. Proposamenak azaldu eta jasotzeko sektore eta herriko batzarrak eragingo dira.

f. Informazioa eskuratzeko eragozpen guztiak ekidingo dira.


g. Erreferendumak eta herri kontsultak bultzatuko dira.

h. Herritarren fondoa sortuko da, hauek egiten dituzten lan guztiak (txostenak, ikerketa teknikoak,...) beharrezkotzat jotzen direnean, bertatik ordaintzeko.

Gure apustua garbia da: demokrazia partehartzailearen ideia suspertuz: lan eta politika egiteko era berria eta herri eredu berri bat egitea Bergara eta bergararontzat.

TRIPARTITOAK BAZTERTURIKO 7 ZINEGOTZI ETA 2.861 BERGARAR

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

◆ **Arantzazura erromesaldia**

Datorren uztailaren 25ean Arantzazuko Santutegira peregrinazioa eta Loiolako Basilikara bisita egingo da. Irteera goizeko 9etan izango da Beheko Estazioetik, 10etan penitentzia komunitarioa egingo da, 11etan Meza Nagusia, eguerdiko ordubatean bazkaria Hospederian, 4retan Ama Birjinari agurra, 5etan Arantzazutik Loiolarako autobusak aterako dira eta 8etan Bergarara itzulera. Izen-ematea (autobusa 850 pta. eta bazkaria 1.600) ondoko komertzioetan egin ahal izango da datozen egunetan: Agirrebeñan (San Antonion), Garitanon (Zubiaurren), Zatoian (Barrenkalen) eta Aranzabalen (Zubietan).

Eguzkialdeko txaleta abuztu hasieran botako da

Abuztuaren lehenengotan Eguzkialdeko txaleta botako da bertan 40 etxebizitzetako edifizio bat egin ahal izateko. Datorren astean bertan txaleteko beleta, harmarria edota hainbat zutabe desmuntatzeko lanak hasi daitezke. Abuztuaren lehen hamabostaldian, berriz, txaleta botako da eta irailean etxebizitzak egiteari ekingo dio Construcciones Arregi enpresak.

Lanak bi urtetan

Arregiren proiektuaren arabera, edifizioak 5 pisu izango ditu eta, Fraiskozuri eta Irizar Ibilbidea gurutzatzen diren lekuan, dorretxo bat izango du hegala destakatzeko asmoz. Beleta dorretxo horren puntan mantenduko da eta lehen aipatutako harmarria eta zutabeak Albisua baserri-eramango dira. Lanak hemendik bi urtera amaituko direla espero da baina konstruktoreek zertxobait lehenago akabatzeke itxaropena azaldu dute.


Egingo diren etxebizitzak albokoan jarraipena izango dira nahiz eta zertxobait baxuagoak izan,



Bi aste barru botako dute Mujikaneko txaleta.

ez baitute terrazarik izango. Irizar Ibilbidetik Juan XXIII. enparantzara dagoen pasabidea, berriz, zabalagoa izango da lanak amaitu ondoren.

Eguzkialdeko txaleta 1928an hasi zen eraikitzen eta 1930a baino lehen amaitu zen. Ez du aparteko balore artistikorik, edifizio eklektikoa baita.



Ondoko planoan ikus daiteke egingo diren 40 etxebizitza berriak.

JAIOTAKOAK


Iosu Herran Ugarte
Uztailak 5
Uxue Lazkano Dobao
Uztailak 5

HILDAKOAK

Antonia Moneo Arnaiz
Uztailak 7, 78 urte
Bitori Oñate Arrese
Uztailak 9, 87 urte
Leandro Ugarte Beitia
Uztailak 10, 78 urte
Maria Mendizabal Iribar
Uztailak 12, 81 urte

BOLSOS BERGARA, S.L.

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoa konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

◆ Egonaldiak balnearioetan

Diputazioak 65 urtetik gorako gipuzkoarrei zuzendutako egonaldiak balnearioetan antolatu ditu. Interesatuak Zestoa (urriaren 1etik azaroaren 30era bitartean), Arnedillo (azaroaren 6tik 20ra) edota Fiteroko (urriaren 20tik azaroaren 3ra arte) balnearioen artean aukeratu ahal izango dute. Izen-ematea uztailean eta abuztuan izango da zabalik eta argibideak 900-43 43 43 doaneko telefonoan jaso daitezke.

◆ Deba ibaiaren aldeko bizikleta martxa


Deba, maite dugun ibaia! lemapean, bailarako talde ekologistek Deba ibaiaren aldeko XVI. Bizikleta martxa antolatu dute iganderako. Irteera goizeko 10.30etan Plazatik egingo da.

◆ Herri Batasunaren deia

Herri Batasunak bailarako talde ekologistek iganderako antolatutako martxa ekologistan parte hartzeko deia luzatu nahi die bergararrei.

◆ Banco Guipuzcoanori eraso

Larunbat gauean ezezagun batzuk Banco Guipuzcoanok Plazan duen bulegoari eraso egin zioten. Bi leihotako kristalak apurtu ondoren, kortinei su eman zieten. Ertzaintzak sua amaturu zuten eta Zubillagako suhiltzaileen aktuzioa ez zen beharrezkoa izan. Sutearen ondorioz hainbat kalte izan ziren.



Zabalotegiko frontoia berriz ere erabili ahal izango dute herritarrek.

Zabalotegiko pelotalekua irailean zabalduko da berriz

Hilabete t'erdi inguru eman dute teilatua konpontzen

Azken hilabetean berrikuntza lanak burutu ondoren, Zabalotegiko frontoia irailean publikora zabaltzea espero da. Gogoratuko duzue, orain urte t'erdi inguru frontoia publikora itxi zen teiltuaren egoera arriskutsua zela eta. Aparejadoreak eginiko txostenaren arabera, teilatua ustelduta eta erortzeko arriskuan zegoela ikusi zen eta beharrezko berritze lanak egin dira. Aipatutako lanek 3.600.000 pezeta-ko aurrekontua izan dute.

Printzipioz, eta Udal Pelotalekuan egiten ari diren lanak amaitu bitartean, B.K.E.ko pelota sailak frontoia erabili ahal izango du. Era berean, herritarrentzat irailean zabaltzeko asmoa dago. Kirol Zerbitzuak finkatutako prezio probisionalen

arabera, erabiltzaileek orduko 400 pezeta ordaindu beharko dute eta, argia erabiltzekotan, 200 pezeta gehiago. Pelotazaleek, berriz, aldagelak erabiltzeko aukera izango dute.

Aipatutako prezio berak Osintxun jarriko dira. Bestalde, Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, herritarrek ondoko pelotalekuak debalde erabili ahal izango dituzte: Espoioia, Torrekua, Bolu, Basalgo eta Angiozarrekoa. Elorregin argia bakarrik kobratuko da eta Uberakoan, auzokideena denez, prezio ezberdinak finkatuta daude. Kirol Zerbitzutik jakinarazi digutenez, Angiozarrekoa da egoera okerranean dagoen frontoia eta Osintxukoa ere margotu beharra dagoela ikusi da.

MEMESA

ARRASATE , 79 42 22 ARETXABAETA


P
phanton

IRIMO

SFK

ALZAS ELEKTRAGINTZA

**Korronte alterno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta
abiada haundiko
induzituen
konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa, 3 ☎ (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA



RIOJA jatorrizko izendapena

• URTEKOA • KLASIKOA • KRIANTZA • ERRETSERBA •



Ari ✓ an Bodega eta Hornikuntzak, S.L.

Ardoak

López Ojeda

Bodegak

LOPEZ OJEDA Ardoak adierazi nahi dizue bere instalazioak San Lorenzo industrialdeko Amillaga, 5era aldatu dituela. Bertan gure ardoak dastatu ahalko dituzue eta zuzeneko salmentari ekingo diogu



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97
- SUINAGA Esther (Etxeko animaliak. Etxez -etxeko zerbitzua). ☎ 76 17 84

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 06 43
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76



Hasierako BERRIGARA haietatik gaur arte aldaketa ugari izan dira.

BERRIGARA astekariak 200. alea banatu du aste honetan

Lau urte t'erdi pasatxo herriaren berri ematen

Eskuetan daukazu hau, BERRIGARAREN 200 alea duzu. Lau urte t'erdi inguru pasatu dira 1990.eko abenduaren 14ean lehen alea kaleratu zenetik. Harrezkero gauza asko aldatu dira: hasierako 16 orrialde haietatik gaur egungo 28ra pasatu gara. Itxura aldetik ere produktua astetik-astera hobetzen saiatu gara, kolorea sartu dugu eta errebista ikusgarriagoa egin dugula usate dugu. Astekaria egiten hasi zen taldea ere poliki-poliki aldatzen joan da, batzuk joan ziren, berriak etorri dira eta beste batzuk hasierako ilusio berarekin dihardute gaur egun ere lanean. 1.600 harpidedun genituen lehen alean eta gaur egun 4.000 errebista banatzen ditugu herriko buzoietan.

Aldaketa ugari, baina beti ere hasierako helburuari eutsiz: Bergarako gertaerak astero euskara hutsez herritarrei helaraztea. Aste honetan, beraz, 200. alea kaleratu dugu eta datorren abenduaren 14ean 5 urte beteko ditugu. Ordurako ale berezia prestatuko dizugu eta hainbat ekitaldi ere antolatuko ditugu.

Bien bitartean, dasta ezazu ale hau eta gogoratu udarako biserak banatuko ditugula aste honetatik aurrera. 23. orrialdeko iragarkia irakur ezazu ondo eta bertan agertzen den txarteletako galderak asmatzen badituzu zurea izan daiteke BERRIGARA bisera bat. 50 banatuko ditugu, baina tokatzen ez bazaizu, lasai, 500 pztaren truke eskuratu ahal izango duzu eta.

◆ Farmazien oporrak

Puy eta Mozoseko farmaziak oporretan izango dira uztailaren 15etik abuztuaren 15era bitartean. Estellak abuztuaren 1etik 15era itxiko du eta, azkenik, Guallar eta Camacho abuztuaren 16tik irailaren 17ra egongo dira itxita.

◆ Argazki lehiaketa

Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuak "Gazteok bizikletan VI. Argazki Lehiaketa" konbokatuta du. Bi kategoria bereiztuko dira: Deba Garaiko 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteak batetik eta 19-35 urte bitarteko edozein bestetik. Partehartzaileek zuribeltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dituzte beren lanak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11n amaituko da eta honako helbide honetara bidali beharko dira: Udaleko Gazte Zerbitzua, Udaletxea, 20500 Arrasate. Argibide gehiago 77 00 65 telefonoan jaso daiteke.

◆ 1937ko kintoen eguna igandean

Igandean 1937ko kintoek beren anaiarteko eguna ospatuko dute. Ordu batean Monja Zaharretan meza entzun ondoren, bazkaltzeko Antxonin jatetxean bilduko dira. Izen-ematea 76 28 90 (Ignacio) telefono zenbakian egin daiteke.

◆ Ur jokoak igerilekuetan

Datozen uztailaren 26, 27 eta 28an, goizez, gazteentzako ur jokoak izango dira kanpoko igerilekuetan.

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARTISAUTZAKO IZOZIA

GOXO-TOKI

D. Irola, 3 - Tlf. 761235
Matxategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Legedia

Abortoaren legea

- Zein nobedade jasotzen da lege proposamen horretan?

- Gaur egun, Europako beste hainbat herrialdetan egin izan den moduan, legea eta errealitatea egokitze beharra ikusi da. Orain arte 3 kasutan bakarrik legeztatzen zen abortoa: fetoa arriskua zegoen kasuetan, ama arriskuan zegoenetan eta, azkenik, biolazio baten ondorioz haurdun geratzen zen emakumeak ere abortatzeko eskubidea zuen. Orain, laugarren supuesto bat jasotzen da aipatutako lege proposamenean, arazo pertsonal, familiar edota sozial larri bat sortzen duen kasuetan alegia.

- Zer esan nahi du horrek?

- Oso anbigua da puntu berri hori eta ez dakigu zehatz mehatz zer gertatuko den. Ikusi egin beharko da epaileek nolako interpretazioa ematen dioten puntu horri. Azken finean eskuartean dugun lege proposamen honen zabalera norainokoan den alde zuretik aipatzea zein den ezinezkoa zaigu. Denborak ba-

iezatu beharko digu egiazko esparru berri baten aurrean gauden edo gauzak orain arte bezala jarraituko duten.

- Lege proposamena lege bihurtzen den noiz erabakiko da?

- Hor tramite batzuk bete behar dira. Ministro Kontseiluak lantzen du lege proposamena eta ondoren Parlamentuan eztabaidatzen da lege bi-



AMAIA ZABALETA
(Abokatua)

hurtzen den ala ez erabakitzeke. Irail aldera pentsatuta dago eztabaida hasia eta nekeza izango da lege bezala ateratzea. Dagoeneko PSOEn proposamenak CIUren ezezkoa jaso du eta PPK eta EAJk ere ezetza e-

"Lege proposamenak emakumeen bizitza (zentzu zabalean ulertuz) babestea du helburu"



Abortoaren alde eginiko manifestazio bateko argazkia. EL MUNDO.

mango dute ziurrenik. PSOEek beste batzuren laguntza ez baldin badauka behintzat ez da irtengo eta oraindik ez dago garbi IUk zer egingo duen.

- Aurrerapausu handia emango da lege bihurtzekotan?

- Ez dakigu zenbat zabalduko den legea. Kontutan izan gainera honelako problemak aurretik prebentzioa egiteko aukera ez dutenen artean ematen direla nagusiki eta, orain arte bezala, arazo ekonomikoak dituztenak izango dira kaltetuenak abortoarekin. Baina argi dago legea errealitatera gehiago egokitu behar dela. Errealitateak aurrera egin duen moduan legeek ere aurrera egin behar dute momentuko egoeretara moldatzeko.

Dena den, ez dut uste laugarren puntu horrek abortoen gehitzea ekarriko duenik. Jakina da abortatzeko arrazoi larriak dituen emakume baten bere haurdunaldia eten egiten duela edozein kasutan, zenbaitetan ondorio larriak jasotzeko arriskuarekin gainera. Laugarren puntu hori eta lege proposamen hori onartzeak ez du bizitzaren kontra joatea suposatzen. Azken batean helburua emakumeen bizitza, zentzu zabalean ulertuz, babestea da.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea

☎ 76 59 54 BERGARA

Simon
Arrieta, 8

Gorka

**OINETAKOEN
KONPONKETA**

Mota guztietako
konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa

Plisti-plasta

2.000 lagunetik gora igerilekuetan

Eguraldi ona egiten duenean bete-beteta egoten dira igerilekuak, lainotuta edo euria egiten duenean, berriz, egunerokoak dira hutsegiten ez duten bakarrak. Bainuzale hauetaz gain, igerilekuetan badira uda lanean ematen dutenak.

Uda sasoiari goizeko 8etan zabaldu eta gaueko 9etan ixten dituzte igerilekuak. Ia hamabi ordu jarraian, baina dena behar den moduan egon dadin asko dira pizinetan lanean jarduten dutenak.

8:00: Eguraldi adituek ditona betetzen bada, giro zoragarria egingo du eta igerilekuak leporaino egongo dira. Goizeko 10etatik 20.45 arte egoten dira zabalik, hala ere joaten garenerako dena behar bezala egon dadin lehenagotik hasten da jendea lanean.

Uaren kloro kopurua kontrolatu behar

Langilerik gehienak 8etan sartzen dira: Mikel Zubizarreta mantenimendu arduraduna, udan sarreran egoten den Aitziber Zabaleta eta kanpoan ibiltzeko kontratatu dituzten 4 langileetako bi, Andoni Bollar eta Izaskun Oteo. Hauek pizinan bueltaka ibiltzeaz gain, garbiketaz ere arduratzen dira. Besteak beste, kanpoko komunak, zelaia,

eta taberna ingurua garbitzen dituzte. Aitziber 10etatik aurrera sarreran egongo da, baina bitartean barrua garbitu behar du. "Hemen udan egiten dut lan. Duen onena soldata da; txarrena, berriz, lana eguraldiaren

araberakoa izaten dela: giro onarekin lan asko izaten da, txarra eginez gero, aspergarria". Mikel makina gelan kloroa, PHa eta ura kontrolatzen ari da. Egunean bi aldiz begiratzen du nola dauden. Kloroak eta PHak muga batzuen artean egon behar dute. "Jendea uraren tenperaturaz arduratzen da, baina kloroak eta PHak garrantzi handia dute. Ura ondo kloratuta egon ezean pizinak itxi egin ditzakete. Zenbat eta jende gehiago eta bero handiagoa egin,

orduan eta kloro gehiago boja behar da. Bestalde, PH gehiegi erabiliz gero, azalari kalte egiteko arriskua dago. Beraz, kontuz ibili behar da".

9:00: Une hotzetan sartu da 24 urte igerian erakusten daraman Jesús Jauregi. "Uda kanpainak direla eta ikastaroetan jende askok hartzen du parte eta sasoi bonetan izaten dugu lanik gehien. Aurten iaz baino talde gehiago dugu. Lehen, kanpoko igerilekuetan erakusten genuen,

"Jendea uraren tenperaturaz arduratzen da baina ura ondo kloratuta egon ezean pizinak itxi egin daitezke"



Arratsalde partean, belarraren berdearen ordez toailen kolore biziak nagusitzen dira.

baina ezin zen ondo lan egin eta barruan erakusten hasi ginen. Egia esan, nik nahiago dut kanpoan jardutea, izan ere, barruan eguzkiak berotu eta giroa hezea izaten baita; igerilariek ere arnasa hobeto hartzen dute kanpoan".

10:00: Duela minutu batzuetatik neska-mutikoak kanpoaldean atea noiz zabalduko zain daude. Azkenean ireki dute.

"Gehienak umeak dira"

Aitziber sarreran jarri eta txartela dutenei zenbakia begiratu eta ordenadorean sartzen hasi da,

"Udan eta neguan etortzen gara. Euria egiten duenean ere ez dugu huts egiten. Udan lau bat ordu egoten gara"

eta ez dutenei kobratzen. "Giro ona dago, jende asko etorriko da. Eguraldi onarekin 2.000ren bat txarteldunetz gain, sarrera ordaintzen dutenak etortzen dira. Saltzen diren sarrerarik gehienak umeenak dira".

Igerilariekin batera beste bi langile ere sartu dira: Irune Azpeitia eta Mireia Markiegi sokorristak. Norbaiti zerbait gertatuz gero, lagundu egiten diote eta igerian ere erakusten dute. "Txanda-

tu egiten gara. Bat kanpoko igerilekuan zaintzaile lanetan bueltaka baldin badabil bestea barrukoan erakusten ari ziren da, eta aldrebes". Laguntza premia duen jende gehiegi ez dela izaten dio Mireiari: "Obrak egin baino lehen istripu gehiago izaten ziren, baina orain ia ez da ezer gertatzen, noizean behin ebakiren bat, kolperen bat...".

Lehenengo bainuzaleak sartu dira, erropak

erantzi eta toaila belarretan jarri dute. Irune txikienei (3-4 urtekoei) eta Jesus haundixeagoei igerian erakusten hasi dira; Andonik gaur ordutegi zatitua duenez, orain atzera arratsaldean bueltatu behar du. Izaskun, berriz, garbiketa lanak bukatu eta Mireiarekin batera hasi da lehenengo bainuzaleak uretan nola dabilzan ikusten.

10:30: Oraindik ez dabil jende asko uretan,

Igerilekuetako zaintzaileak

Telesail ezagunaren eraginez hondartzetan sokorristek duten arrakastarik ez dutela diote igerilekuetako zaintzaileek. "Badakit iaz bati telesailko baten izenez deitzen ziotela, aurten guri adarra jotzen digute, baina apartekorik ez". Egiten duten lana hondartzan egingo luketen galdetutakoan Mireiak garbi du: "Nahiago dut igerilekuetan lan egitea, hondartzako arriskurik ez dago, ez olaturik, ez erresakarik...". Igerilekuek eta hondartzek batean dutena eguzkia da. "Eguzkipean ordu asko egiten dugu eta kontuz ibili beharra dago; babes haundiko kremak erabili eta ur asko edaten dugu". Mireiaren arabera, lanak duen txarrena jendeari aurre egitea da: "Haurrak korrika, elkarru ura botatzen, baloiarekin jolasean, e.a. ibiltzen direnean behar bezala portatzeko esan eta jaramonik egiten ez dutenean aurre egitea ez da atsegina".



Telebistako saio ospetsua dela eta, adar jotze ederrak izaten dituzte pizinetako zaindarien.

MUGICA
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3
☎ 76 10 34

SIRIMIRI
jatetxea


PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



Mikel Zubizarretak makina gelan egiten du lan.

"ordu honetatik ordu biak bitartean etortzen diren gehienak egunerokoak dira, igerian egitera etortzen direnak. Arratsaldean ezin izaten da ondo ibili eta goiza aprobetxatzen dute" dio Mireiak. Denen artean badira nabarmen direnak: igeri elkartekoak. Leire Zeziagaren agindutara, entrenamenduetan besoei eta hankei eraginez pare bat ordu ematen dituzte. Hauen urratsak jarraitu nahian edo, ahalegin galantak egiten ari dira, amaren begiratua kendu bari, ikasten ari direnak.

13:00: Ordu honetatik aurrera txanda aldaketak izango dira: langile batzuk sartu, besteak atera, edo lan aldaketa izango dute. Jesús eta Mireia, hirurak bitartean bazkaltera aterako dira.

15:00: Gero eta jende gehiago ari da sartzen; zelaian belarraren berdea baino gehiago toailen kolore biziak ari dira nagusitzen. Jenderik gehien arratsaldean ibiltzen de-

nez, sarreran Aitziberren lekukoa bik hartu dute, Ane Olabidek eta Benita Calvok.

Jenderik gehien ordu bietatik lauretara bitartean

"Jenderik gehien ordu bietatik lauretara sartzen da. Gehienak haurrak eta emakumeak dira, gutxien etortzen direnak, dudarik gabe, gizonezkoak; eta etortzen direnak, batez ere, iluntze aldean, lanetik ateratakoan".

Eguerdiko etenaren ostean, barruko igerilekuan berriz hasi dira ikastaroak. Kanpoan batzuk eguzkipean bezten eta beste batzuk uretan dabiloz bitartean, beste zaintzaile bat eta bi sokorrista hasi dira bueltaka, Marisabel Pagaldai, Aitor Elorza eta Jose Luis Silva. Nahikoa lan dute saltoka eta korrika dabiloz haurrei kontuz ibiltzeko esaten.

19:00: Jendea poliki-poliki ateratzen. M. Luisa Urrutia eta Enkarna

▼ **Yosune LINAZISORO**

Kirol Zerbitzuko zuzendaria

■ **Pizinetan sartzeko zer ordaindu behar da?**

■ 18 urte artekoek 370 pezetako sarrera ordaindu behar dute eta gorakoek 550. Txarteletan, berriz, aukera ugari dago. Irailetik aurrera, bestalde, txartelen prezioa %40 murrizten da.

■ **Zenbaitek dioenez igerilekuetako sarrera garesti samarra da.**

■ Aurten iazko KPI edo IPCaz gain sarrera igo egin behar izan da:

mantenimendu kostua (makinak, depurazioa, garbitzeko produktuak...) oso handia da eta autofinantziazioa oso baxua. Sarrerekin eta txartelekin ateratzen dena ez da nahikoa gastuak ordaintzeko.

■ **Lehenago ireki eta beranduago ixteko asmorik ba al dago?**

■ Ez, ezinezkoa da. Oraingo ordutegia ez dago guk hala nahi dugulako, behar eta baldintza guztiak hartu behar izan dira kontutan. Igerilekuak garbi eta baldintza onean aurkitu nahi baditugu, ezin da lehenago ireki edo beranduago itxi.



"Sarrerekin ateratzen dena ez da nahikoa gastuak ordaintzeko"

Torres hutsegiten ez dutenak dira: "egunerokoak gara, udan eta neguan etortzen gara. Euria egiten duenean ere ez dugu hutsegiten, askotan asteburuetan ere etortzen gara. Udan 4 bat ordu egin, tabernan zerbait hartu eta etxera joaten gara. Ikaragarri gustatzen zaigu bainatzea eta eguzkia hartzea".

Beranduago itxi

Abel Iglesias familia guztiarekin etorri da, "eguraldi ona egiten duenean etortzen gara. Ni orain irten arren, emaztea alabekin itxi arte geratzen da". Sartzen ari di-

renak ere badira, Jon Sui-naga, esaterako: "Aurretik ezin eta azken orduan etortzen naiz; nire ustez, beranduago itxi beharko lituzkete. Lehenengo, Poligono inguruan korrika egin eta gero gimnasia etortzen naiz tiratzera, beti ez naiz bainatzen".

20:45: Azken bainuzaleak atera dira, igerilekua hustu da. Sarrerako langileek eta zaintzaileek, ordea, ez dute aldegin, dena txukuntzen eta garbitzen hasi dira.

21:30: Nekatu-ta, beste lanegun bat bukatu dela eta pozik atera dira langileak igerilekuetatik.

Mikel eta Jokin Ugarte

Jokin Ugarte

Azken 40 urtetan Brasilen bizi diren bergararrak

Jokin (68 urte) eta Mikel Ugarte (62) anak orain dela 40 bat urtetik Brasilen bizi dira. Uda garaia aprobetxatuz, Bergarara etorri dira Itziar bere arreba eta gaztetako lagunak eta tokiak bisitatzeko asmoz.

- Noiz alde egin zenuen Brasilerara?

- 1952an. Gure gurasoak gu baino lau urte lehenago joan ziren gure aita-jauna han bizi baitzen. Hemengo hainbat enpresatan lan egin eta gero hara joatea erabaki genuen, egoera ez baitzen oso ona. Gurasoek alde egin zutenean errazionamendua zegoen eta lana egon arren, krisia nabaria zen. Brasil, berriz, oso aberatsa zen baina ez zegoen gobernurik, herritarren arteko desberdintasunak nabariak ziren. Desoreka haundia dago Brasilen. Guk diktaduratik ihes egin genuen baina Brasilen ere, 1964tik aurrera, diktadura ezagutu genuen. Oraingo egoera, berriz, hobea da.

- Zertan lan egin duzue urte hauetan?

- Hasieran Anapolisen (Goias estatuan) izan ginen. Aitari laguntzen ge-

nion ortuan eta gero tailerretan mekaniko modura hasi ginen lanean. Lehenengotan estu samar ibili ginen eta Brasilia egiten hasi zenean kaminoak egiten hasi ginen. Kamioi batzuk erosi genu-

tuen eta lurrezko kamioiak (lurrezkoak ziren gutxiak) asfaltatzen genituen. Konpontzen bagenekieenez, kamioi zaharrak erosten genituen.

Ondoren kamioiekin garraioak egiten genituen. Jokinek gerriko mina zuela eta garraioetan lan egiteari utzi zion eta Gobernador Valadaresen (orain bizi garen lekuan, Minas Geraiseko estatuan) taberna bat jarri zuen. Orain jubilatuta dago eta

nik, berriz, lanean jarraitzen dut hemendik pare bat urtera jubilatuta arte. Bi kamioi dauzkat (parabrisean Ikurriña jarrita) eta Valadaresetik Rio de Janeiro eta Sao Paulora zerbezak eramaten jarduten dut.

- Zelakoa da Brasileko momentuko egoera?

- Orain urtebete gobernu aldatu da eta diruak estabilitate gehiago dauka orduan. Orain behintzat egiten duzun lanaren arabera badakizu zenbat irabaziko duzun. Egoera onera doa eta oraindik gehiago hobetuko dela esaten dute adituek. Ikusi behar...

- Badauka antzikerbaitetan Brasilek honekin?

- Ardaia eta uraren modukoak dira. Hemengo langile batek hango nagusiaren moduan irabazten du. Irabazi gutxi egiten da (gutxieneko soldata 110 dolarrekoa da) eta lan gehiegi ere ez dago. Baina egoerak badirudi hohera egingo du-



1974an Valadaresen ateratako argazkian, ezkerretik eskumara, Jokin eta Mikelen gurasoak, Mikel eta bere emaztea beren lau seme-alabekin, Itziar Ugarte eta Jokin bere emaztearekin.

ela. Janaria ere oso desberdina da baina ez da sekula ezer falta. Hori bai, hemengo ardoa han balego...

- Bergarara zenbatero etortzen zarete? Berrirako bueltatzeko asmorik baduzue?

- Ni (Jokin) orain 2 urte izan nintzen lehen aldiz joan ginenetik. Mikel, berriz, orain 6 urte egon zan. Nekez ikusten dugu hona etortzea. Familia han daukagu biok [brasildarrekin ezkondu daude biak eta Jokinek 3 seme-alaba eta Mikelek beste 4 dauzka] eta emazteen familiak asko tiratzen du. Oraindik ez dira hona etorri, Mikel bere emaztearekin etorri da orain. Han daukagu gure bizimodua eta noizean behin etortzen jarraituko dugu.

- Nola aurkitu duzue Bergara?

- Ez genuen pentsatzen hainbeste aldatuko zenik. Fraile euskaldun batzuk (Bilboko eskolapioak) ezagutzen ditugu han eta esaten zigutenean hau asko aldatuta zegoela ez genien sinisten. Benetan oso sorpresa ona hartu genuen. Hemendik joan ginenean esate baterako laupabost kotxe izango ziren herrian eta etxe guztiak alkilerrean zeuden. Goitik beherako aldaketa somatu dugu.

- Euskeran primeran egiten duzue. Nola lortu duzue horri eustea?

Mikel eta Jokin orain dela 43 urte joan ziren Brasilerara eta orain dela gutxira arte ez ziren berriz ere jaioterrira bueltatu.



- Gurasoekin euskaraz egiten genuen eta gure artean eta Bilboko fraileekin ere euskaraz egiteko

ohitura daukagu. Jendea harritzen den? Pixkat bai, baina ez diegu kasorik egiten. Horrelako kasue-

tan guk zera esaten diegu: zela esango diezue hemengo indioei indioz ez berba egiteko?

"Ez genuen pentsatzen Bergara hainbeste aldatuko zenik. Sorpresa ona hartu dugu benetan"

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai, 2
☎ 76 51 65


IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

ITXASMENDI



ERREKADISTA
Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61


EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

Pizinetara sarri joaten zara? Zein eritzi daukazu igerilekuei buruz?



Roberto Aranzabal
58 urte, langilea

Pizina fenomenoa daukagu, mundiala. Ni neguan eta udan etortzen naiz eta barrukoa ere ondo dago, berritzea komeni den arren.



Alain González
17 urte, ikaslea

Ni udan bakarrik etortzen naiz eta ondo dago. Beharbada dutxa hotzegia...



Ane Iturralde
27 urte, ikaslea

Udan neguan baino gehitxoago etortzen naiz. Ondo daude, nik ez dut ezer faltan botatzen.



Ibon Eraña
11 urte, ikaslea

Normalean hasieran ura hotza egoten da baina ondo daude. Asko etortzen gara eta primeran pasatzen dugu.



Ainhoa Iglesias
12 urte, ikaslea

Ia arratsaldero etortzen naiz lagunekin bainua hartu eta eguzkitan egoteko eta ondo egoten da hemen. Ura pixkat hotza igual...




Matilde Beaskoetxea
63 urte, etxekoandrea

Urte guztian etortzen naiz eta behin kanpokoa zabalduz gero nahiago dut kanpoan egon. Ura ere oso ederra dago, ardaia freskatzeko bezala.




Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24


ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



Mairutik aureskura!

Mairuaren alardeak ematen die fama Piedadei; kanpotar asko hurbilazten ditu behintzat. Bertakook ere, geurea izanagatik, estimatzen dugu urteroko eskupeta eta kainokaden ekintza dotorea: tanbor eta dultzainaren hotsa, desfilearen martzialitatea, kapitaina zaldian, diskurtsoaren indarra, astotxo gainean joaten den mairu beltza... Iraganen hartu eta orain artean bizirik eutsi izan zaio ohitura honi, herriak eutsi hain zuzen ere, berak egiten baitu urtez urte.

Aurreko dena kontuan hartuta ere, bada Antzuolako jaien egitarauan neuri gehiago gustatzen zaidan beste ekintza bat, lerro hauek argitaratzen direnerako amaituta egongo dena: alkateak eta zinegotziek urtero urtero egiten duten aureskua. primeran pasatzen dut aizue! Hango gazte haren estuasunak ikusita, ustekabeen tripa handidunak erakusten duen liraintasunaz harrিতa, pausua galtzen duen beste horren aurpegiko gorritasuna somatuta, hanka jaso ezin duen erdi-jubilatuaren ahalegina txalotuta... Eta aurtengoak, atzokoak hobe esan, bazuen berezitasunik, hautatu berriek dantza egin behar baitzuten. Eta badut urtero urtero ekintza hau ez galtzeko beste arrazoi bat, termometro gisa erabil daitekeela: herriaren aurrean dantza egiteko borondaterik ez duenak izango du herriaren alde lan egitekoa? Edozein modutan, zorionak antzuolar gurtzio!

Beñardo KORTABARRIA



Problematxo bat

Gaia aukeratzea arazo latza da gaur niretzat; egunero berriez nekaturik edota nazkaturik egoteak ez dit horiez idazteko gogorik sortarazten. Beste zerbaiti hel niezaioke, baina zeri? Juan Carlos I.ari buruz idazten saiatu naiz, baina ez dut jakin gai hau ondo bideratzen eta ahalegin hutsean geratu da nire helburua. Udaz, oporrez edo turismoaz ere berba egin nezake zer esango jakingo banu, baina ezta ere. Hala ere, badut batzuei behintzat pentsaraziko dizuen zerbait, maistro izan nuen batek kontatu zidan problematxo bat:

Hiru gizon orain dela urte batzuk, jatetxe batera joan ziren afaltzera. Primeran afaldu, eta zerbitzariari kontua eskatu zioten. Honek, 30 pzta. zirela adierazi, eta hiru gizonek hamarna pezeta mahai gainera atera eta zerbitzariari eman zioten dirua, baina, garestia iruditu zitzaie la esanaz. Zerbitzaria nagusiarengana joan eta dirua eman ostean, bezeroei afaria garestia iruditu zitzaie la esan zion. Orduan honek (nagusiak) zerbitzariari 5 pzta. luzatu zizkion eta bezeroei itzultzeko agindua eman. Baina, zerbitzariak pezeta bana eman zien bezeroei eta gainontzekoarekin bera geratu zen. Kalkulu simple bat eginez gero, ikus daiteke bezero bakoitzak 10 pzta. ipintzen dituela, zerbitzariak bakoitzari pezeta bat itzultzen diola eta zerbitzaria pezeta birekin geratzen dela.

10-1=9 pezeta da bakoitzak ipini duen kantitatea. Gizonak hiru direnez: $9 \times 3 = 27$. Eta zerbitzariak berarentzat hartu duena 2 pzta. dira: $27 + 2 = 29$. Non dago falta den pezeta? Oh: Planteamenduan dago koska.

Felipe IÑARRA

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

■ Lurralde Santuetan

Aldamenean daukazuen argazkia Jordaniako Jericoko haztarna arkeologikoetan ateratakoa da eta bertan ikus dezakezuenez, **Yasher Arafath** OLPko palestinarren burua agertzen da turista talde batez inguratuta. Turista horiek Kutxak antolatutako bidaiaren batean Lurralde Santuak ekainean bisitatu zituzten jubilatutako gipuzkoarrak dira. Bertan **Jose Mari Atorrasagasti** eta **Gotzon Barrenetxea-Arando** bergararrak agertzen dira. Turistak zur eta lur geratu ziren Arafath ikusi zutenean. Lider palestinarra Helmut Kohl Alemaniako lehen ministroarekin batera ari zen haztarna arkeologikoak ikusten eta halako batean turista gipuzkoarrekin topo egin zuen. protokoloa hautsi zuen eta turistekin batera argazkia ateratzera animatu zen. Argazkian, Gotzon Arafathen gainean ikus dezakezue eta Jose Mari goren agertzen dena da, betaurrekodun gizonaren ondoan.



Yasher Arafathek gustora hartu zituen turista gipuzkoarrak eta eurekin argazkia ateratzeko ez zuen oztoporik jarri.



■ Argazkilari sarituak

Ostiralean **Kirol Argazkien V. Lehiaketako** sari bana-keta egin zen Kultur Etxean. Irabazleek diru-sariak eta Tere Guenetxearen eskultura bana jaso zuten Rufina Olasagasti Kultur Jestorea eta Iñaki Ugarte-buru Kirol Teknikariaren eskutik. Argazkian, ezkerretik eskumara, goian: Natxo Millán, Juan Mari Tolín, Iñaki Ugarte-buru, Javier Fernández, Juan

Armentia eta Rufina Olasagasti. Makurtuta, Miren Leturia eta Agustin Gurrutxaga.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

IGARZA

MERZERIA
LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA



■ Errioxako ardo bikaina

Gaur Ipintzako futbol txapelketako finala jokatu duten **Bildurbarek** taldekoak Arabar Errioxako **Uriona** (Villanueva) herriskan **Marin anaiek** duten bodegatan izan

ziren joan zen zapatuan. Gaurko finala prestatzeko, Arabar Errioxako ardo bikainak edatea baino modu hoberik ez omen zuten aurkitu Bildurbarek taldekoek eta bertara joan ziren egun pasa egitera. Argazkia bodega aurrean bazkalostean aterata dago eta aurpegian nabaritzen zaie *osasuntsu* daudela. Zapatuko *kontzentrazioa* finalerako baliagarri izan zaien ala ez ikusiko dugu gaur...


■ Indurainen aurretik

Bergarako 30 bat zikloturista Pirineo aldean izan ziren uztail hasieran. Datozen egunotan bertan ibiliko da Tourreko tropela, baina **Tourmalet** gain ospetsutik Indurainen aurretik igo dutela eta, arro sentituko dira bergarar txirriindulariak.



Argazkian ikus ditzakezue Tourmalet gaina igo eta gero. Aurretik Lourdes ondoko herriska batetik irten eta 105 kilometro egin zituzten bizikleta gainean. Ez dakigu nor heldu zen lehenengo. Eta zuek, ezetz asmatu nor pasatzen den lehenengo Tourmaletoko gainetik datorren astean Tourreko etaparik garrantzitsuenetakoan?

Zertan dihardute ba?



Gorka Elorza pasa den urtarrilera arte BERRIGARAKO zuzendaria izan den 31 urteko angiozartarra Angiozarko auzo alkate berria izateko aukeratu zuten auzokideek uztailaren lehenengotan egindako botazioan. Guztira, boto eskubidea zuten 280 auzokideetatik 160k eman zuten botoa. Botazioan azken 8 urteotan Angiozarko auzo alkatea izan den Jose Angel Mikeo nagusitu bazen ere, honek karguari ezetza eman dio eta, beraz, bigarren geratu zen Gorka Elorza izango da auzo alkate berria. Botazioan hirugarren Jose Angel Arriaran "Pierro" geratu zen. Elorzak Albaitaritzia ikasketak burutu zituen Zaragozan eta Victoriano Gallastegi alkatearen oneritzia jaso beharko du auzo alkate izateko.

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan espezialitatea


OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Pello Garitano

Herriko elkarte gehienen alde egin du lan Pello Garitanok (56 urte). Orain 14 urtetik Lokatza Ziklismo Eskolako (78 lizentzia) zuzendaritzako partaidea da eta, horrez gain, abesteko zaletasunari eusten dio aukera duen bakoitzean.

- Badago Indurainik Lokatza?
- Orain ez. Baina 16 urterekin egiten ez dena 22rekin egin daiteke...
- Tourra irratitik ala telebistatik?
- Ahal dudanean telebistatik.
- Kirol kazetari bat?
- Tito Irazusta.
- Toureko hiru lehenak, nortzuk?
- Indurain, Berzin eta Rominger.
- Sprinter bat?
- Jalabert.
- Eskaladore bat?
- Pantani.
- Mailotik politena?
- ONCEkoa.
- Historiako ziklistarik onena?
- Merckx. Baina Indurainek hobetuko du. 7 Tour irabaziko ditu.
- Zure favorittoa zein?
- Ni Bahamontistia nintzen.
- Ziklismoak gora ala behera egin du?



"Indurainek Merckxek egin zuena hobetuko du, nere ustez 7 Tour irabaziko baititu. Neri gehien Bahamontes gustatzen zitzaidan. Edozein lekutan abestea gustatzen zait, abestea eta barre egitea dauden gauzarik onenak dira"

- Afizio handia dago baina korredoreak lehenago erretzen dira.
- Janari bat?
- Txuleta zalea izan naiz beti baina arrainera pasatzen hasi naiz.
- Edari bat?
- Jatorduan ardoa.
- Zenbat ordu lo?
- 8 bat.
- San Ferminetan egon zara?
- 16 bat urte ez naizela joan baina badaukat bueltatzeko gogoan..
- Entzierroak ikusten dituzu?
- Ez, banakaren bat...
- Hobby bat?
- Ziklismoa eta abestea.
- Ahotza argitzeko zer?
- Ozpina eta limoia nahastuz gargarak egin, arazo dextente izaten dut eta.
- Dutzan abesten duzu?
- Edozein lekutan. Onena kantuan eta barre egitea da.
- Mendia udan ala neguan?
- Udan nahiago.
- Pizina ala hondartza?
- Pizina gutxi, plaia ahal dudanean.
- Zein plaiatara joaten zara?
- Saturraranera normalean.
- Kanpina ala hotela?
- Kanpina.
- Oporretan nora?
- Oropesa aldera.
- Santa Marinako jaietako zein ekitaldi gomendatzen diguzu?
- Tanborrada.

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 beheka ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak


GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02




Zer dute Borja, Ione eta Aitorrek buruan?

Zuk ere eskuratu dezakezu bisera bat. Behean jarri dizkizugun galderak asmatu, txartela bete eta ekarri BERRIGARAra datorren asteazkena baino lehen. Jasotako txartelen artean 50 bisera zozketatuko ditugu. Tokatzen ez bazaizu, lasai egon, 500 pzta.ren truke eskuratu ahal izango duzu BERRIGARAren bertan. Zatoz!!!

NOIZ KALERATU ZEN BERRIGARAREN LEHEN ALEA?

ETA 200. ALEA NOIZ ARGITARATU DA?

ZENBAT BALIO DU BERRIGARA BISERA BATEK?



**Borja, Ione eta
Aitorrek buruan
bisera dute**



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGAR

San Juan Erreka. Elgetara bidai

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Gas-teizen. Ikasleentzat egokia. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Pisua alokatzen da Deban udan. ☎ 76 58 91 (gauzez).

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Azkarruntzen (merke). ☎ 81 36 58.

Apartamentua salgai Burdiñaten. ☎ 76 19 09.

Garajea alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Mobilette Cady motorra salgai. ☎ 76 13 11 (gauzez).

Motor bat salgai. ☎ 76 07 74.

Karabana bat salgai (berri-berria). ☎ 76 10 09.

Squier Stratocaster kitarra saltzen dut. ☎ 76 15 07 (lker).

Honda CBR 600 F motorra (SS-AS) salgai. ☎ 76 34 10.

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. ☎ 76 22 77 (gauzez).

Ordenadorea (386 SX 33) salgai. ☎ 76 04 22 (gauzez).

"Benimar" karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astartetik larunbatera).

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Daewoo musika kataia salgai. CD eta 2 pletina. ☎ 76 23 82 (Mikel).

Renault 5 GTS (SS-AH) kotxea egoera onean salgai. 500.000 pezeta. ☎ 76 34 90.

LANA

Tabernari bezala lan egingo nuke. ☎ 76 41 94 (Amaia).

UBI eta kontabilitate klaseak abuztuan. ☎ 76 18 00.

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Haurrak zaindu eta etxea egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 06 69.

Kamarera lan egingo nuke. ☎ 76 16 83 (Edurne).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta Zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

Neska bat behar da emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 21 99.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Neska euskaldun batek etxeko lanak egin eta haur edo zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 16 22 (Nere Amaia).

Algebra eta fisikako klaseak (1.go "Teleko") hartuko nituzke. ☎ 76 15 07 (Eneko).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta BBBko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

Antzuolan haurrak zaintzeko neska bat hartuko nuke. ☎ 76 63 66 (gauzez).

Pianoko klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 59 (Mikel).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



"Gure kasa hasi ginen, partiturak hartu eta entsaiatu, eta gero Tolosako maisu batekin aritu ginen"

"Rock taldeek ere gero eta gehiago erabiltzen dute dultzaina, hor ditugu Hertzainak, Eskixu..."

ASIER LAZKANO, KOBOK DULTZAINERO TALDEKOA

"Dultzainarako ohizko piezaz gain, sanbak edo mexikarrak ere lantzen ditugu"

Jesus Arriaran (23 urte), Asier Lazkano (22) eta Xabier Agirrek(19) osatzen dute Kobok. Bergarako dultzaineroak dira. Han eta hemen antolatzen diren jaietan ikusi ahal izango dituzue buruhaundiak laguntzen edota kalez kale herria alaitzen. Bi lehenengoek dultzaina jotzen dute eta Xabier antzularrak, berriz, tamborraz laguntzen die.

- Noiz sortu zenuten taldea?

- Orain dela hiru urte, eta hasierako hirurok jarraitzen dugu gaur egun. Hirurok elkar ezagutzen dugu, Musika Eskolan eta Udal Musika Bandan elkarrekin ari gara eta. Jesus Arriarani bururatu zitzaion eta taldea osatzera animatu gintuen. Lizarrara askotan joaten da eta han dultzaina asko entzuten da, talde ugari daude. Horrela ekin genion.

- Nola bururatu zitzaizuen Kobok izena?

- Taldea sortu eta izena asmatu behar. Horrela etorri ginen liburutegira eta entziklopedia, hiztegi eta abarrak begiratzen, Kobok izena aurkitu ge-



Orain dela hiru urte ekin zioten Kobok taldekoek.

nuen. Aintzina kobazuloei horrela deitzen omen zieten eta bestalde, atzetik aurrera eta aurretik atzera berdin irakurtzen da, oso irakurterreza da.

- Euskal Herrikanpo beste toki batzuetan ere jotzen al da dultzaina?

- Bai, Eskozian, Galizian, Kataluinan, Sorian..., toki askotan. Nahiz eta izen ezberdinak eduki instrumentoa berdina edo antzerakoa da.

- Eta non erosten dituzue?

- Tolosako artisau batek egiten dizkigu. Musika dendatan ere saltzen dituzte eta artisau asko daude Nafarroa aldean batez ere dultzainak egiten dituztenak. 20.000 eta 50.000 pza. inguruan balioko du bakoitzak, baina txarrena kañak erraz apurtzen direla da eta kañak bakoitza mila duro inguru kostatzen da.

- Ikasi non ikasi zenuten?


- Gure kasa hasi ginen, partiturak hartu eta entsaiatzen. Eta gero Tolosako maisu baten aginduetara izan ginen. Orain, astean behin elkartzen gara entsaiatzeko. Bandan, saxofoia, bajoa eta oboea jotzen dugu eta Koboken hasi ginenez ez genekien dultzaina jotzen. Ezberdina da...

- Ze motatako errepertorioa daukazue?

- Dultzainarako ohizko piezaz gain, beste berri batzuk lantzen ere ditugu: mexikarrak, runbak, sanbak eta horrelakoak. Rock taldeek ere gero eta gehiago erabiltzen dute dultzaina, hor dugu Eskixu taldea.

**"Eskozian,
Galizian,
Kataluinan,
Sorian..., toki askotan jotzen da dultzaina, nahiz eta izen ezberdinak izan. Euskal Herrian Nafarroan gehien"**

IPINTZAKO



futbol txapelketa

Gaur jokatuko dute finala Mongatxurra eta Bildurbarek taldeek

▼ komentarioa

Heldu da finala eta bertan, nor baino nor Bildurbarek eta Mongatxurra taldeak izango dira. Bildurbarekek txapelketako golegile onena du, Juan Luis Etxaniz, eta Mongatxurrak, berriz, Lauri Askargorta atezaina, gol bakar bat sartu diotena txapelketa osoan zehar eta berau penaltiz. Bi taldeek erakutsi dute txapelketako onenak izan direla eta joku orekatua eta kalitatekoa ere egin dute. Final erdiak ere erraz gainditu dituzte, inolako arazorik gabe. Halere, Ipintzara hurbiltzen den zalegoaren artean Mongatxurra da faborito nagusia, oraindik ez baitu partidu bakar bat ere galdu. Beraz, onenak irabaz dezala eta futbolarekin zerikusirik ez duten kontu guztiak alde batera geratu daitezela. Suerte arbitroari eta marrazainei eta gaur denok Ipintzara.

▼ emaitzak

FINAL LAURDENAK

A Ze Flaxa-Shaktale	0 - 0
Ogizun-Mongatxurra	0 - 4
Bildurbarek-Xurruapak	8 - 0
Arloteak-Angiozar	1 - 1

FINAL ERDIAK

A Ze Flaxa-Mongatxurra ..	1 - 3
Bildurbarek-Angiozar	4 - 0

▼ finalak

OSTIRALA 14

19.30: A Ze Flaxa-Angiozar
20.30: Mongatxurra-Bildurbarek

▼ golegileak

1. J.L. Etxaniz (Bildurb.) 22 gol
2. Ivan Etxeberria (Mongatx.) 13
3. F. Salinero (Ogizun) 13
4. Igor Larrañaga (Arloteak) 6
5. Markos Alonso (Amilotx) 6
6. Josu Arana (Bildurbarek) 5
7. Romero (Arloteak) 5
8. Alex Odriozola (Amilotx) 4



Nahikoa lan izan zuen Pako Vallejo A Ze Flaxa taldeko atezainak Mongatxurraren erasoari aurre egiteko. Hirugarren golean huts egin arren, geldiketa onak egin zituen partidu osoan zehar. Bestalde, Juan Luis Etxaniz, Bildurbarek taldeko aurrelariak golak egiteko duen erraztasuna agerian utzi zuen Angiozarkoei bi gol sartuz. Lehenengoa bikaina izan zen eta Karlos Marzana Angiozarko atezainak lan ona egin zuen arren, ezin izan zuen ezer egin Etxanizen erasoaldien aurrean.






Haurrentzako igeriketa ikastaroen arrakasta handia izan dute.

500 partaidetik gora aurtengo Uda Kanpaina

520 lagun ari dira aurtengo Uda Kanpaina antolatuta diren kirol ihardueretan. Igeriketan ari direnak dira gehienak (284 lagun); tenisean 52 lagunek dihardute, abentura kirolean 48k, aerobikean beste 48k, jazz dantzan 35ek eta beste eratako kirolean 53 lagunek. Adinari dagokionez, 16 urtetik beherakoak dira gehienak (% 58) eta sexuari

dagokionez emakumeak gehiago dira (%57,5) gizonen baino.

Kirol Zerbitzutik adierazi digutenez, rafting edota kañoi jeitsierak egiteko eta piraguismoan aritzeko izena eman daiteke oraindik. Beraz, norbaitek kirol hauek egin nahi baditu, Udaletxera, Kirol Zerbitzuko bulegoetara, joatea besterik ez du.



Komentarioa



Harrijasotzeaz libratu ginela eskerrak!!

Froga guztiak gustatzen zaizkit, halere eskerrak harrijasotzeaz libratu ginela. Talde guztia neskaz osatuta dago eta hasieran froga batzuetan parte hartzeko gogo handirik ez izan arren, parte hartu dugu eta ondo pasatu dugu. Mutilak zela portatzen diren gurekin? Orain arte behintzat, oso ondo. Halere joan zen urtean jende gehiagok parte hartu zuen eta batzuek laga egin dute. Onena herriko talde guztiek parte hartzea izango litzateke giro hobea izateko. Horrezaz gain Olinpiaden ondoren lagun berriak egiten dira eta merezi du parte hartzea.


**LARRAITZ
BARRENETXEA-
ARANDO
CHEER LEADERS**



Era ezberdinetako jokua egiten dira Olinpiadetan.

Herri Olinpiadetako kamisetak salgai

Herri Olinpiadetako lehen eguneko proba, txirindulari lasterketa alegia, bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek egin zuen txaparradagatik. Froga hori datorren ostiralerako atzeratu dute eta taldeek adi egon beharko dute aldaketa horretara. Bestalde, giro ona eta kuadrilen arteko laguntasuna dira nagusi ekitaldi guztietan zehar. Gainera Aksi For Ever taldekoak heldu dira kanpalditik eta hasi dira euren abileziak erakusten. Beste urte batzuetan bezala, aurtengo Olinpiadetarako antolatzaileek kamisetak salgai jarri dituzte. 1.200 pzta balio dute eta Zigor Martínez bergararrak egindako marrazki batean daude oinarrituta. Kamiseta eskuratu nahi duenak antolatzaileekin jarri beharko du harremanetan.



Sailkapena

1. KIB 430
2. BASERRI KOUK 420
3. SOROPOTROAK 410
4. TXARRENAK 400
5. CHEER LEADERS 370
6. XURRUPAK 355
7. IN THE GARDEN 240
8. KABESTROS 205
9. SHAKTALE 125
10. MONGATXURRA 120
11. AKSI FOR EVER 35

Egitaraua

ASTELEHENA, 17
BOLEIBOLA.
BELA JOKUA.
ELEMENTAL BERRIAN.

ASTEARTEA, 18
HOCKEY-PATINAK.
PAÑUELITOA.
SEMINARIOAN.

ASTEAZKENA, 19
HERRI KIROLAK.
SAN MARTIN PLAZAN.

OSTEGUNA, 20
IGERIKETA PROBAK.
KANPOKO IGERILEKUETAN.

OSTIRALA, 21
ERLOJUAREN KONTRAKO
TXIRINDULARI PROBA.
MAHAI JOKUAK.
SAN MARTIN PLAZAN.

OSTIRALA, 22
HERRI BAZKARIA.
SAN MARTIN PLAZAN.

KIROL IHARDUERA GUZTIAK
ARRATSALDEKO 6ETAN HASIKO
DIRA. HERRI BAZKARIA,
ARRATSALDEKO ORDU BIETAN.

Eneritz Muguruza

Urrezko dominak igeriketan

ĪNAKI LETE III. TXIRRINDULARI MEMORIALA

Igandean goizeko 9,30etatik aurrera Antzuolan 2. mailako afizionatuentzat Iñaki Lete III. Memoriala jokatu da. Afizionatu mailako txirrindularirik onenetarikoak izango dira, tartean Orbea taldean dabilen Unai Osa gipuzkoarra eta Banesto taldeko Morras.

TRIAL-INDOOR ETA TRIALSIN ANTZUOLAN

Antzuolako Jai Batzordeak antolatuta igandean arratsaldeko 5etan Zurrategi plazan Euskadiko trial-indoor eta trialsinlari onenak izango dira. Motorrek eta bizikletek desguazerako kotxeak, tuboak, bidoiak eta kontenedoreak pasa beharko dituzte. Sarrera doan da eta antolatzaileek ikuskizuna ziurtatuta dagoela adierazi dute.

IGERILARIAK GIPUZKOAKO TXAPELKETARA

Asteburuan zehar Ordizian jokatu den Gipuzkoako Txapelketan Ainhoa Alberdi, Agurtzane Crespo, Amaia Oregi, Oihana Manso, Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur, Eli Alberdi eta Aritz Lamikiz igerilari bergararrak izango dira infantil, kadete eta gazteen mailetan parte hartzen.

Eneritz Muguruza igerilari gazteak joan zen astean Tolosan jokatu-tako Euskadiko Txapelketan bi urrezko domina lortu zituen. 12 urte bakarrik ditu eta horrela jarraitzen badu etorkizunean asko hitz egingo dugu berari buruz.

- Zenbat urte daramatzazu igeri egiten?

- Orain dela 3 urte hasi nintzen. Ikastolan ikasten nabil eta orduan ez nuen eskolaz kanpo kirolik egiten. Orduan Jesús Jauregi ikastolara etorri zen eta igeri egitera gonbidatu gintuen. Orduan hona nabil igerian.

- Ze probatan lortu zenituen urrezko dominak?

- 100m krol eta tximeleta estiloetan. Tolosara joan aurretik ez nuen espero horrelako emaitzarik lortzea eta gauzak oso ondo irten zitzaizkidan. Halere, krolean dudana baino denbora eskasagoa egin nuen eta tximeletan, aldiz, denbora hobe lortu nuen.

- Horretaz gain, beste froga batzuetan ere parte hartu zenuen?

- Bai, guztira lau probatan hartu nuen parte, 200m estilotan 4. izan nintzen eta 100m brazan ez dakit zenbagarrena izan nintzen. Aurten lortutako emaitzarik onenak izan dira. Astebukaera honetan Gipuzkoako Txapelketa dugu Ordizian eta espero dut errepikatzea. Izan ere, Euskadikoarekin alderatuz

igerilari gutxiago izango dira eta errazagoa izango da irabaztea.

- Zer da zailagoa, krolean edo tximeletan aritzea?

- Niretzat tximeleta estiloa da zailagoa, gehiago nekatzen da eta estilo horrek gehiago exigitzen du. Bestalde, gehien gustatzen zaidana krolean aritzea da.

- Zenbat denbora entrenatzen duzue?

- Egunero 2 ordu eta laurden ibiltzen gara.


- Ez al da gehiegizkoa eskolara joan eta

gero entrenatzea?

- Ez, asko gustatzen zait igeri egitea eta gainera taldean oso giro ona daukagu eta ondo pasatzen dugu.

- Datorren urterako ze helburu dituzu?

- Aurten Espainiako Txapelketara joateko marka lortu nuen krol estiloan, baina marka hori Txapelketa baino 15 egun lehenago lortu behar da eta nik berandua-go lortu nuen. Pena bat da eta ea datorren urtean lortzen dudana Espainiako Txapelketara joatea.



Euskadiko Txapelketan bi urrezko domina lortu ditu krol eta tximeletan.

"Espainiako Txapelketara joateko gutxieneko marka lortzea espero dut"



Lagunartea abesbatza

O in dala 30 bat urte Bergarañ, Don Nikomedesek bultzatuta Lagunartea Abesbatza sortu zan. San Pedroko sakristixan ensaiatzen zeben, kuadrilla desberdinetako hogeta hamarren bat lagunek osatu zeben eta gero neskak be sartu zien taldian. Justo Idigorasek jardun zeban zuzendari lanetan, denporiak in abesbatza desagertu zan arte. Bizkaixan eta Gipuzkuan zihar ibiltzen zien kantuan eta Tolosako lehiaketarako be otxote batek urten zeban hemendik. Bergaran pazkuetan eta halakuetan eitten zeben kantuan eta bertako batzuk gaur egun be jarraitzen dabe.

Ezkerretik eskumara:

Goiko illaran: Alberto Egidazu, Ismael Arrieta, Pello Garitano, Iñaki Arriaran, Anjel Borobia, Jabier Lizarralde, Jose A. Aperribai.

Erdikoan: Ignacio Gillegi, Ramon Iraegi, Mateo Salaberria, Luis Belastegi, Jabier Zezeaga, Jose I. Uribesalgo.

Behekoan: Jose Arrieta, Jabier Ena, Justo Idigoras, Xabier Amenabar, Jose A. Muñoz.

Felipe Iñarra

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorenzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1. 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



ederfu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

EGILUZ LURRINDEGIA

Irizar, z/g
BERGARA



E

GILUZ LURRINDEGIA
kosmetikan espezialista den JEANNE
PIAUBERT METODOA ezagutzera
gonbidatzen zaitu.

Formula aurreratuak eta goi mailako
teknologia erabiliz aurpegi eta
gorputzerako tratamendu eraginkorra
ezagutaraziko dizu.

Etortzen bazara dohain emango
dizugu zeure tratamendu
berezirako proba.

Méthode

Jeanne Piaubert
PARIS



BEHERAPENAK!

**UNITED COLORS
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRAS